# ISEI - IVEI

## Rs8. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO BIGARREN HEZKUNTZA BUKATZEA

ISEI·IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Edizioa: Abendua 2008**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**ASESORAMIENTO TÉCNICO**
Eduardo Ubieta

**DISEINUA**
Ikur, S.A.

# GUTXIENEZ DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN ONDOKO IKASKETAK (CINE 3A, 3B ETA 3C) BUKATU DITUEN 20-24 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

**Europar batasunaren helburua 2010. urterako: 22 urteko pertsonen artean gutxienez %85ek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak bukatuta izan behar dituzte.**

Oso garrantzitsua da biztanleria helduaren ehuneko handi batek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko titulazioa lortzea, biztanleriaren ikasketa maila oro har igotzeari begira eta bereziki langileena.

Hezkuntza maila horrek eskaintzen dituen prestakuntza eta gaitasuna, goi mailako hezkuntzarako sarbiderako propedeutikoa izateaz gain, berez bukaerako prestakuntza bezala har daitezke, gazteen integrazio egokirako behar diren adimen eta giza heldutasuna eta gaitze teknikoa eskaintzen baititu, bai goi mailako hezkuntzan baita lan munduan ere.

Ezagutzan oinarritutako gizartean egoki parte hartzeko behar-beharrezkoa da derrigorrezkoaren ondoko bigarren hezkuntzak ematen duen oinarria edukitzea.

Goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatze-tasa etengabe handitu da EBko 27 herrialdeetan batez beste 2007an %78,1 zen. 2000.urtetik aurrera etengabeko bilakaera izan du, baina %1,5ez bakarrik igo da eta, beraz, 2010. urterako finkatutako helburura heltzea oso zaila izango dela pentsa daiteke. Hala eta guztiz ere, 2007an EBko 27 herrialdeetako 9k lortua dute helburua, adibidez Zipre (%85,8) eta Txekiar Errepublika (%91,8, tasarik handiena). Ehuneko baxuena duten herrialdeen artean Portugal (%53,4) eta Malta (%54,8) daude, 2000-2007 aldian zehar igoera handia izan duten arren (%10,2 eta %13,8 hurrenez hurren).

EAEn, 1992-1999 aldian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko titulazioa duen 25-64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoak goranzko bilakaera izan du, %69,3tik %83,2ra igo delarik. 2000-2007 aldian, berriz, ehunekoa %81 inguruan mantendu da eta, aldi horretako bilakaera kontuan izanik, urrun samar geratzen da EBk 2010. urterako finkatu duen helburutik (%85). Hala ere, Euskadin adin tarte horretako emakumeek (%86) finkatutako helburua gainditu dute.

Autonomia Erkidegoei dagokienez, kasua larriagoa da, 2000-2007 aldian izandako bilakaera negatiboa izan baita, orokorki eta Erkidego gehienetan, Extremaduran (2,8 puntuko igoera) eta Galizian (2,5 puntuko igoera) izan ezik. Gainera, Autonomia Erkidegoetako batez bestekoa, %61,1 da. Ehunekorik altuena duen erkidegoa Euskadi da (%80,8) eta baxuena, Ceuta eta Melilla (%37,5)

Adierazle honetan ere sexuaren aldetiko ezberdintasunak nabaritzen dira, ezberdintasun horiek urteetan zehar mantendu direlarik.

2007an, bai Europar Batasuneko herrialdeetan, bai Autonomia Erkidegoetan eta baita Euskadin ere, emakumezkoek gizonezkoek baino ehuneko handiagoan lortu dute goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioa.

## Rs8.1 taula eta grafikoa:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. EAEko datuak.**

| URTEA* | Sexu biak | Emakumeak | Gizonak | Aldea |
|---|---|---|---|---|
| 1992 | 69,3 | 72,6 | 66,0 | 6,6 |
| 1993 | 68,8 | 75,4 | 62,2 | 13,2 |
| 1994 | 74,9 | 78,9 | 70,9 | 8,0 |
| 1995 | 76,0 | 80,2 | 71,7 | 8,5 |
| 1996 | 79,0 | 82,0 | 76,1 | 5,9 |
| 1997 | 77,8 | 80,5 | 75,2 | 5,3 |
| 1998 | 78,6 | 83,8 | 73,7 | 10,1 |
| 1999 | 83,2 | 88,3 | 78,2 | 10,1 |
| 2000 | 81,5 | 87,6 | 75,7 | 11,9 |
| 2001 | 81,4 | 86,5 | 76,4 | 10,1 |
| 2002 | 80,9 | 83,4 | 78,6 | 4,8 |
| 2003 | 78,3 | 83,7 | 73,2 | 10,5 |
| 2004 | 81,5 | 85,5 | 77,7 | 7,8 |
| 2005 | 81,0 | 86,0 | 76,3 | 9,7 |
| 2006 | 81,2 | 87,3 | 75,3 | 12,0 |
| 2007 | 80,8 | 86,6 | 75,3 | 11,3 |

*1992-1999 aldiko datuak 2. hiruhilabetekoak dira. 2000-2007 aldiko datuak urtekoak dira eta EPA-2005 teknologiarekin kalkulatu dira.




Iturria: EUROSTAT

## Rs8.2 taula:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Autonomia Erkidegoetako datuak.**

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **66,0** | **65,0** | **63,7** | **62,2** | **61,2** | **61,8** | **61,6** | **61,1** |
| Andaluzia | 58,4 | 58,6 | 56,4 | 54,2 | 52,8 | 53,1 | 52,3 | 54,0 |
| Aragoi | 75,0 | 75,5 | 68,0 | 71,3 | 70,1 | 70,8 | 67,9 | 66,4 |
| Asturias | 71,6 | 73,8 | 72,4 | 64,6 | 66,9 | 72,2 | 67,0 | 70,2 |
| Balear Uharteak | 51,1 | 50,7 | 54,2 | 52,2 | 51,1 | 51,9 | 51,0 | 47,6 |
| Ceuta eta Melilla | 51,4 | 56,1 | 53,7 | 53,6 | 50,6 | 46,2 | 39,4 | 37,5 |
| Errioxa | 70,7 | 71,9 | 69,7 | 63,2 | 59,8 | 67,8 | 64,8 | 62,1 |
| **Euskadi** | **81,5** | **81,4** | **80,9** | **78,3** | **81,5** | **81,0** | **81,2** | **80,8** |
| Extremadura | 51,8 | 55,5 | 57,3 | 55,7 | 51,9 | 53,9 | 54,6 | 55,4 |
| Galizia | 65,0 | 66,6 | 66,8 | 69,2 | 68,8 | 69,2 | 67,5 | 68,0 |
| Gaztela eta Leon | 70,3 | 69,7 | 70,0 | 67,6 | 70,2 | 66,6 | 67,1 | 67,4 |
| Gaztela-Mantxa | 59,0 | 57,7 | 55,8 | 55,5 | 55,6 | 55,0 | 54,2 | 54,1 |
| Kanariak | 55,8 | 54,5 | 59,3 | 59,1 | 58,4 | 59,3 | 54,4 | 52,1 |
| Kantabria | 70,9 | 69,8 | 67,1 | 65,3 | 67,0 | 71,8 | 69,6 | 67,5 |
| Katalunia | 67,8 | 65,4 | 65,0 | 60,9 | 59,4 | 61,2 | 65,7 | 61,2 |
| Valentziako E. | 62,3 | 58,4 | 58,1 | 58,4 | 58,6 | 61,0 | 61,8 | 61,4 |
| Madril (Erkidegoa) | 77,9 | 75,7 | 72,0 | 72,2 | 68,6 | 67,9 | 66,4 | 67,2 |
| Murtzia | 57,2 | 58,4 | 56,0 | 52,9 | 51,7 | 53,0 | 51,9 | 51,8 |
| Nafarroa (F. Erkidegoa) | 82,3 | 79,8 | 75,6 | 75,0 | 73,7 | 77,4 | 82,9 | 78,3 |

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005)

## Rs8.2 grafikoa:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa. Autonomia Erkidegoetako datuak.**




Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "2007. urtea" irizpidearen arabera.

Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005).

## Rs8.3 taula eta grafikoa:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. Autonomia Erkidegoetako datuak. 2007. urtea.**

| | Guztira | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Aldea |
|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **61,1** | **67,3** | **55,1** | **12,2** |
| Andaluzia | 54,0 | 60,4 | 47,9 | 12,5 |
| Aragoi | 66,4 | 72,5 | 60,6 | 11,9 |
| Asturias | 70,2 | 76,0 | 64,6 | 11,4 |
| Balear Uharteak | 47,6 | 56,5 | 39,0 | 17,5 |
| Ceuta eta Melilla | 37,5 | 37,6 | 37,3 | 0,3 |
| Errioxa | 62,1 | 62,8 | 61,4 | 1,4 |
| **Euskadi** | **80,8** | **86,6** | **75,3** | **11,3** |
| Extremadura | 55,4 | 64,3 | 47,1 | 17,2 |
| Galizia | 68,0 | 78,4 | 57,8 | 20,6 |
| Gaztela eta León | 67,4 | 73,5 | 61,5 | 12,0 |
| Gaztela-Mantxa | 54,1 | 63,7 | 45,2 | 18,5 |
| Kanariak | 52,1 | 61,3 | 43,0 | 18,3 |
| Kantabria | 67,5 | 75,3 | 60,0 | 15,3 |
| Katalunia | 61,2 | 67,8 | 55,0 | 12,8 |
| Madril (Erkidegoa) | 67,2 | 70,1 | 64,4 | 5,7 |
| Murtzia | 51,8 | 58,9 | 45,4 | 13,5 |
| Nafarroa (F. Erkidegoa) | 78,3 | 78,7 | 78,0 | 0,7 |
| Valentziako E. | 61,4 | 66,1 | 57,0 | 9,1 |




Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik, "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (EPA-2005)

## Rs8.4 taula:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.**

| | 2000 | 2001 | 2002 | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EB (27 herrialde)** | **76,6** | **76,6** | **76,7** | **76,9** | **77,2** | **77,5** | **77,9** | **78,1** |
| **EB (25 herrialde)** | **76,6** | **76,5** | **76,7** | **77,0** | **77,3** | **77,6** | **77,9** | **78,0** |
| **EB (15 herrialde)** | **73,7** | **73,6** | **73,7** | **74,0** | **74,4** | **74,7** | **75,0** | **75,2** |
| Alemania | 74,7 | 73,6 | 73,3 | 72,5 | 72,8 | 71,5 (b) | 71,6 | 72,5 |
| Austria | 85,1 (b) | 85,1 | 85,3 | 84,2 | 85,8 (i) | 85,9 | 85,8 | 84,1 |
| Belgika | 81,7 (b) | 81,7 | 81,6 | 81,2 | 81,8 | 81,8 | 82,4 | 82,6 |
| Bulgaria | 75,2 | 78,1 (b) | 77,4 | 76,3 | 76,1 | 76,5 | 80,5 (i) | 83,3 |
| Danimarka | 72,0 | 78,4 (i) | 78,6 | 76,2 (b) | 76,2 | 77,1 | 77,4 | 70,8 (b) |
| Erresuma Batua | 76,6 | 76,9 | 77,1 | 78,7 | 77,0 | 78,2 | 78,8 | 78,1 |
| Errumania | 76,1 | 77,3 | 76,3 | 75,0 | 75,3 | 76,0 | 77,2 | 77,4 |
| Eslovakiar Errepublika | 94,8 | 94,4 | 94,5 | 94,1 | 91,7 | 91,8 | 91,5 | 91,3 |
| Eslovenia | 88,0 (b) | 88,2 | 90,7 | 90,8 | 90,5 | 90,5 | 89,4 | 91,5 |
| **Espainia** | **66,0** | **65,0** | **63,7** | **62,2** | **61,2** | **61,8** | **61,6** | **61,1** |
| Estonia | 79,0 (b) | 79,8 | 81,4 | 81,5 | 80,3 | 82,6 | 82,0 | 80,9 |
| **Euskadi** | **81,5** | **81,4** | **80,9** | **78,3** | **81,5** | **81,0** | **81,2** | **80,8** |
| Finlandia | 87,7 (b) | 86,1 | 85,8 | 85,3 | 84,5 | 83,4 | 84,7 | 86,5 (p) |
| Frantzia | 81,6 | 81,8 | 81,7 | 81,3 (b) | 81,7 | 83,4 | 83,2 | 82,4 |
| Grezia | 79,2 | 80,2 | 81,1 | 81,7 | 83,0 | 84,1 | 81,0 (p) | 82,1 |
| Herbehereak | 71,9 | 72,7 | 73,1 | 75,0 | 75,0 | 75,6 | 74,7 | 76,2 |
| Hungaria | 83,5 | 84,7 | 85,9 | 84,7 (b) | 83,5 | 83,4 | 82,9 | 84,0 |
| Irlanda | 82,6 | 83,9 | 84,0 | 85,1 (p) | 85,3 (p) | 85,8 (p) | 85,7 | 86,7 |
| Italia | 69,4 (b) | 67,9 | 69,6 | 71,0 | 73,4 | 73,6 | 75,5 | 76,3 |
| Letonia | 76,5 | 71,7 (i) | 77,1 (b) | 75,4 | 79,5 | 79,9 | 81,0 | 80,2 |
| Lituania | 78,9 (i) | 80,5 | 81,3 (b) | 84,2 | 85,0 | 87,8 | 88,2 | 89,0 |
| Luxemburgo | 77,5 | 68,0 | 69,8 | 72,7 (b) | 72,5 | 71,1 | 69,3 | 70,9 |
| Malta | 40,9 | 40,1 | 39,0 | 45,1 (b) | 51,0 | 53,7 | 50,4 | 54,7 |
| Polonia | 88,8 (b) | 89,7 | 89,2 | 90,3 | 90,9 | 91,1 | 91,7 | 91,6 |
| Portugal | 43,2 | 44,4 | 44,4 | 47,9 | 49,6 | 49,0 | 49,6 | 53,4 |
| Suedia | 85,2 | 85,5 (b) | 86,7 | 85,8 | 86,0 | 87,5 | 86,5 | 87,2 |
| Txekiar Errepublika | 91,2 | 90,6 | 92,2 | 92,1 | 91,4 | 91,2 | 91,8 | 91,8 |
| Zipre | 79,0 | 80,5 | 83,5 | 79,5 | 77,6 | 80,4 | 83,7 (p) | 85,8 |

(b) Seriearen haustura
(i) Ikus oharrak: http://europa.eu.int/estratef/info/sdds/en/strind/innore_ir09.htm
(p) Behin-behineko balioa
Oharra: 2006ko urritik aurrera adierazle hau lau hiruhilabeteetako urteko batez bestekoetatik kalkulatu da, 2. hiruhilabeteko datua edo udaberriko datua izan beharrean.

Iturria: EUROSTAT

## Rs8.4 grafikoa:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan.**




Oharra: handienetik txikienera ordenaturik, erreferentziatzat 2007. urtea harturik.

Iturria: EUROSTAT

## Rs8.5 taula:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. 2007. urtea.**

| | Sexu biak | Emakumeak | Gizonak | Aldea |
|---|---|---|---|---|
| **EB (27 herrialde)** | **78,1** | **80,8** | **75,4** | **5,4** |
| **EB (25 herrialde)** | **78,0** | **80,9** | **75,2** | **5,7** |
| **EB (15 herrialde)** | **75,2** | **78,3** | **72,2** | **6,1** |
| Alemania | 72,5 | 74,4 | 70,6 | 3,8 |
| Austria | 84,1 | 85,4 | 82,7 | 2,7 |
| Belgika | 82,6 | 84,9 | 80,4 | 4,5 |
| Bulgaria | 83,3 | 83,6 | 83,0 | 0,6 |
| Danimarka | 70,8 (b) | 77,7 (b) | 64,2 (b) | 13,5 |
| Erresuma Batua | 78,1 | 79,0 | 77,2 | 1,8 |
| Errumania | 77,4 | 77,7 | 77,1 | 0,6 |
| Eslovakiar Errepublika | 91,3 | 92,1 | 90,5 | 1,6 |
| Eslovenia | 91,5 | 94,3 | 89,0 | 5,3 |
| **Espainia** | **61,1** | **67,3** | **55,1** | **12,2** |
| Estonia | 80,9 | 89,6 | 72,2 | 17,4 |
| **Euskadi** | **80,8** | **86,6** | **75,3** | **11,3** |
| Finlandia | 86,5 (p) | 88,0 (p) | 84,8 (p) | 3,2 |
| Frantzia | 82,4 | 85,0 | 79,8 | 5,2 |
| Grezia | 82,1 | 87,0 | 77,5 | 9,5 |
| Herbehereak | 76,2 | 80,5 | 71,9 | 8,6 |
| Hungaria | 84,0 | 85,6 | 82,5 | 3,1 |
| Irlanda | 86,7 | 89,7 | 83,7 | 6,0 |
| Italia | 76,3 | 80,0 | 72,7 | 7,3 |
| Letonia | 80,2 | 84,1 | 76,4 | 7,7 |
| Lituania | 89,0 | 91,5 | 86,5 | 5,0 |
| Luxemburgo | 70,9 | 76,4 | 65,6 | 10,8 |
| Malta | 54,7 | 58,6 | 51,1 | 7,5 |
| Polonia | 91,6 | 93,4 | 89,7 | 3,7 |
| Portugal | 53,4 | 60,8 | 46,3 | 14,5 |
| Suedia | 87,2 | 89,0 | 85,4 | 3,6 |
| Txekiar Errepublika | 91,8 | 92,4 | 91,3 | 1,1 |
| Zipre | 85,8 | 91,0 | 79,8 | 11,2 |

(b) Seriearen haustura
(p): Behin-behineko balioak

Iturria: EUROSTAT

## Rs8.5 grafikoa:

**Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzan (CINE 3A, 3B eta 3C) graduatu den 20-24 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera Europar Batasuneko 27 herrialdeetan. 2007. urtea.**




Oharra: Handienetik txikienera ordenaturik "Sexu biak" irizpidearen arabera.

Iturria: EUROSTAT